

Agora, ezagutzaren plaza

Ane Zabaleta ikertzailearekin hitzaldi-solasaldia

Lurzoruaren kudeaketaren eragina eguneroko ur-horniketan

Iurreta, 2025eko otsailaren 25a. Kalitatezko edateko ura eskuratzea gero eta erronka handiagoa bihurtu da munduan, eta Euskal Herria ez da salbuespena. Baliabide naturalen gehiegizko ustiapena eta kutsadura bezalako faktoreek, edota klima-aldaketaren ondorioek gero eta gehiago eragiten diete ibaiei eta akuiferoei, gure ur-iturri nagusiei.

Nola berma dezakegu ezinbesteko baliabide natural horren epe luzerako hornidura egonkor eta iraunkorra? Inguruko basoetako lurzoruak modu eraginkorrean kudeatzeak eragin positiboa izan lezake eguneroko ur-horniduran.

Gai honen inguruan hitz egingo du UPV/EHUko Prozesu Hidro-Ingurumeneko Ikertaldeko **Ane Zabaleta** ikertzaileak **“Lurzoruaren kudeaketaren eragina eguneroko ur-horniketan”** hitzaldian.

Ane Zabaleta Geologian doktoratu zen Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) eta bere hitzaldian [Life-Urbaso](#) ikerketa-proiektu europarraren gako batzuk azalduko ditu. Esaterako, ikerketa honetan edateko uraren kantitatea eta kalitatea bermatzeko, naturan oinarritutako hainbat irtenbide garatuko dira eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako 40 ur-erauzketa gunetan ezarriko eta probatuko dira irtenbide horiek.

Horrez gain, hitzaldian, egunero kontsumitzen dugun urarekin zerikusia duten gai ohikoenei ere erantzungo die: uraren jatorria, honen ibilbideari buruzko xehetasunak eta arrotik gure txorrotetaraino bidean zehar aurkitzen diren oztopo zeintzuk diren.

[UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) eta [Iurretako Herri Bibliotekak](#) bultzatutako **Agora, ezagutzaren plaza** hitzaldi-zikloaren barruan egingo da ekitaldia, **otsailaren 25ean, asteartea, 18:30ean**, bibliotekan bertan. Sarrera librea eta doakoa da lekuak bete arte.

Hizlaria

[Ane Zabaleta Lopetegi](#) Geologian doktoratu zen Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Gaur egun, UPV/EHUko Matematika, Zientzia Esperimental eta Gziarte Zientzien Didaktika saileko irakaslea da, Prozesu Hidro-Ingurumeneko Ikertaldeko ikertzailea. Azken 20 urteetan, lurrazaleko uren azterketan espezializatu da,



Kultura
Zientifikoko Katedra
Cátedra
Cultura Científica

sedimentuekin duen dinamikan eta klima-aldaketak lurzoruaren kudeaketan duen inpaktuan.

Hitzaldi-solasaldi: "Lurzoruaren kudeaketaren eragina eguneroko ur-horniketan"

Hizlaria: Ane Zabaleta, Geologian doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) ikertzailea

Data: otsailaren 25a, asteartea

Ordua: 18:30etan

Hizkuntza: euskera

Lekua: Iurretako Herri Biblioteka (Bidebarrieta kalea, 4 – Iurreta) Lehen solairua.

Ágora, plaza del conocimiento

Charla-coloquio con Ane Zabaleta

La influencia de la gestión del suelo en el abastecimiento diario de agua

Iurreta, 25 de febrero de 2025. El acceso al agua potable de calidad se ha convertido en un desafío creciente en todo el mundo y el País Vasco no es una excepción. Factores como la sobreexplotación y contaminación de los recursos naturales, y los efectos derivados del cambio climático afectan cada vez más a ríos y acuíferos, nuestras fuentes principales de agua.

¿Cómo podemos garantizar un suministro estable y sostenible a largo plazo de este recurso natural imprescindible? Una gestión eficiente de los suelos de los bosques próximos podría tener un impacto positivo en el abastecimiento diario de agua.

Sobre esta cuestión hablará la investigadora del grupo de Procesos Hidro-Ambientales de la UPV/EHU, **Ane Zabaleta**, durante su charla **“Lurzoruaeren kudeaketaren eragina eguneroko ur-horniketan”** (“La influencia de la gestión del suelo en el abastecimiento diario”).

Para ilustrarlo, Zabaleta, doctora en Geología por la Universidad del País Vasco UPV/EHU, explicará algunas de las claves de la iniciativa europea [Life-Urbaso](#), proyecto de investigación europeo el que se van a desarrollar una serie de soluciones basadas en la naturaleza a fin de asegurar la cantidad y calidad del agua de consumo humano. Estas soluciones se implementarán y pondrán a prueba en alrededor de 40 puntos de extracción de agua pertenecientes a la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

Asimismo, durante la charla también dará respuesta a algunas cuestiones más habituales relacionadas con el agua que consumimos a diario como su origen, detalles de su recorrido habitual, así como alguno de los principales obstáculos que se encuentra a lo largo del camino desde la cuenca hasta nuestros grifos.

La charla-coloquio, que se enmarca en el ciclo de conferencias **Ágora, ezagutzearean plaza** (Ágora, plaza del conocimiento) impulsadas por la [Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU](#) y la [Biblioteca Municipal de Iurreta](#), tendrá lugar el **martes, 25 de febrero a las 18:30 horas** en la biblioteca. La entrada es libre hasta completar aforo.

La conferenciante

[Ane Zabaleta Lopetegi](#) es doctora en Geología por la Universidad del País Vasco, profesora del departamento de Didáctica de las Matemáticas, Ciencias Experimentales y Sociales en la UPV/EHU e investigadora del grupo de Procesos Hidro-Ambientales. En los últimos 20 años



Kultura
Zientifikoko Katedra
Cátedra
Cultura Científica

se ha especializado en el estudio de aguas superficiales, su dinámica con los sedimentos y el impacto del cambio climático en la gestión del suelo.

Charla-coloquio: "La influencia de la gestión del suelo en el abastecimiento diario de agua"

La conferenciante: Ane Zabaleta, doctora en Geología por la Universidad del País Vasco UPV/EHU e investigadora del Grupo de Procesos Hidro-Ambientales

Fecha: martes, 25 de febrero

Hora: 18:30 horas

Idioma: euskera

Lugar: Biblioteca Municipal de Iurreta (Calle Bidebarrieta, 4 – Iurreta). Primera planta.